

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburu nagusia janariari bigarren aukera bat ematea da, hau da, egunean zehar saldu ez diren elikagai horiek basurean ez bukatzea da gure ideia, horiek aprobetxatuz. Gainera, familia askok ez daukate beharrezkoak diren elikagai guztiak erosteko aukera, eta horren aurrean, leku hauetara joan eta inguruko baserri zein dendetako elikagaiak hartzeko aukera izango dute.

Gure kasuan, bereizten gaituena da ez dela diru trukerik egongo. Esaterako, baserritar zein dendari horiek borondatez utziko dituzte elikagaiak eta beharra duen jendeak hartu egingo ditu.